

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAITZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 14.435 eskaintza erregistratu dira 2025ean, 2024an baino 418 gutxiago, hau da, % 2,81eko jaitsiera.


LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketa Administrazio Unitateko (KAU) lurralde historikoari dagokionez, 2.248 eskaintza erregistratu dira Araban, 5.644 Gipuzkoan eta 6.543 Bizkaian. Beraz, eskaintzen % 45,33a Bizkaiko UAG-etan erregistratu da, % 39,10a Gipuzkoan eta gainerako % 15,57a Araban.

Aurreko urtearekin alderatuta, hiru lurraldeetan egon da bilakaera negatiboa, eta Arabak izan du balore erlatiboetan jaitsierarik nabarmenena, % 6,18koa (-148 eskaintza).

Gipuzkoan % 3,26koa izan da jaitsiera, 190 eskaintza gutxiagorekin; Bizkaiak beherakada txikiena jaso du, % 1,21ekoa, hau da, 80 eskaintza gutxiago erregistratu dira.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa




ESKAITZAREN OKUPAZIOA

Bost okupazio-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako eskaintza gehienak. Zientzietako teknikarien profilak izan ditu eskaintza gehien, 3.010 esaterako, erregistratutako eskaintza guztien % 20,85a. Laguntza teknikarien, zerbitzuen, kualifikatu gabekoen eta industriakoen eskaintzek ere pisu nabarmena dute, erregistratutako eskaintzen bolumena % 17,82, % 17,58, % 13,84 eta % 13,63 izanik, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituen profila zuzendariena da, 109 eskaintzekin, eta, ondoren, lehen sektoreko langileen profila, 151 eskaintzekin.

Urte arteko saldoari dagokionez, bi okupazio profilek soilik izan dute bilakaera positiboa. Industria okupazio-profileko eskaintzek izan dute hazkunderik handiena balore absolutuetan, 64 eskaintza gehiagorekin (+% 3,36), lehen sektoreko eskaintzek hazkunde erlatibo handiena izan duten bitartean, % 12,69koa (+17 eskaintza). Aitzitik, balore absolutuetan egondako jaitsierarik handiena laguntza-teknikarien profilaren eskaintzei dagokio, 2024an baino 143 eskaintza gutxiagorekin (-% 5,27); balio erlatiboetan, berriz, eskaintza kopuruan beherakada handiena izan duen profila zuzendariena izan da, % 12,10eko jaitsierarekin (-15 eskaintza).

KONTRATU MOTA


Erregistratutako eskaintzen % 42,41a mugagabe izaera-koak izan dira, eskaintzen % 56,90a aldi-baterakoak, eta gainerako % 0,68a merkataritzakoak. Balore absolutuetan, eskaintza mugagabeak 6.122 izan dira, iaz baino 65 eskaintza gehiago, hau da, % 1,07ko hazkundera. Aldi baterako eskaintzak 8.214 izan dira, iaz baino 497 gutxiago, % 5,71ko beherakada izanik. Azkenik, merkataritzako eskaintzak 98 izan dira 2025an, iaz baino 15 gehiago (+% 18,07).



Interesgarria da nabarmentzea izaera mugagabeko eskaintzek izan duten ehuneko-igoera: 2022an % 29,39 izatetik, 2023an % 38,18 izatera, 2024an % 40,78 izatera igaro dira, eta 2025ean % 42,41era iritsi dira. 2021aren amaieran onartutako lan-erreformak mota horretako eskaintzen gorakada nabarmena ekarri du, nahiz eta erritmoa jaitsi den.

ESKATUTAKO ESPERIENTZIA - DENBORA

2025ean erregistratutako eskaintzen % 78,16ak 6 hilabete baino gutxiagoko esperientzia eskatzen du, hau da, 11.283 eskaintzek. Eskaintzen % 11,65ak (1.681 guztira) 6 eta 12 hilabete bitarteko esperientzia eskatzen du. Erregistratutako eskaintzen % 7,59ak (1.096 guztira) urtebete eta 3 urte arteko esperientzia behar du. Ehunekoak txikiagoak dira esperientzia-aldi handiagoa eskatzen duten eskaintzetan, hala nola, 3 eta 5 urte bitartekoak eta 5 urtetik gorakoak, % 2,13ko eta % 0,47ko pisuarekin, hurrenez hurren.




Urte arteko bilakaerari dagokionez, 3 eta 5 urte bitarteko esperientzia eskatzen duten eskaintzetan soilik egon da hazkundera, 2024an baino 38 eskaintza gehiagorekin (+% 14,13). Aitzitik, balio absolutuetan egondako jaitsierarik handiena 6 hilabete baino gutxiago eskatzen dutenetan jaso da, 243 eskaintza gutxiagorekin (-% 2,11); balore erlatiboek dagokienez, beherakada handiena 5 urte baino gehiago eskatzen dutenetan izan da, % 15,00eko jaitsierarekin (-12 eskaintza).

Erregistratutako eskaintza guztiak kontuan hartuta, eskatutako esperientziaren batez bestekoa 7 hilabetekoa izan da, 2024an bezala.

LANALDI MOTA

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten lan-jardunaldia eskaintzak erregistratzeko orduan. Izan ere, eskaintzen % 16,52ak soilik zehazten du lanaldia (14.435 eskaintzetatik, 2.384 bakarrik). 2.384 eskaintza horietatik, 1.937 lanaldi osoko lan-eskaintzak izan dira, eta gainerako 447ak lanaldi partzialekoak.

Lanaldi mota



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 2024an baino 45 gutxiago izan dira, hau da, % 2,27ko jaitsiera. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 76 gehiago izan dira, % 20,49ko hazkunde erlatiboarekin.


ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Aurten erregistratutako eskaintzen % 2,06a ABLEn bitartez kudeatu da; hau da, 14.435 eskaintzetatik 298. Beraz, aurreko urtearekiko hazkundea 24 eskaintzetakoa izan da (+% 8,76).

ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Hau ere eskaintzak erregistratzeko orduan beti zehazten ez den beste alderdi bat da. Eskaintzen % 81,70ak ez du zehaztu eskatutako gutxieneko prestakuntza-maila, hau da, erregistratutako 14.435 eskaintzetatik 2.642k soilik zehaztu dute lanpostuko zereginak bete ahal izateko gutxieneko prestakuntza maila.

Eskatutako gutxieneko prestakuntza maila



2.642 eskaintza horietatik 964k unibertsitate ikasketak eskatu dituzte, gehien eskatu den prestakuntza-maila izanik (% 6,68). Ondoren, Lanbide Heziketako ikasketak eskatzen dituztenak daude, 917 eskaintzekin (% 6,35). Gero, derrigorrezko ikasketak eskatzen dituztenak datoz, 578 eskaintzekin (% 4,00). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 183 eskaintzekin (% 1,27).

Urte arteko bilakaerari dagokionez, prestakuntza-maila guztietako eskaintzetan egon da jaitsiera, derrigorrezko ikasketak eskatzen dituztenetan baizik, 43 eskaintza gehiago izan baitituzte (+% 8,04). Aitzitik, balore absolutuetan egondako jaitsierarik handiena Lanbide Heziketako eskatzen dituztenetan izan da, 124 eskaintza gutxiagorekin (-% 11,91). Ondoren, unibertsitate ikasketak eskatzen dituztenak datoz, 77 eskaintza gutxiago jasoz (-% 7,40). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenetan 28 eskaintza gutxiago jaso dira (-% 13,27).

ESKAINTZAREN JARDUERA

2025ean EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako eskaintza-bolumenagatik nabarmentzen diren jarduerak Manufaktura-industria, 1.858 eskaintzekin, eta Handizkako eta txikizkako merkataritza, 1.749 eskaintzekin, izan dira, erregistratutako eskaintza guztien % 12,87a eta % 12,12a izanik, hurrenez hurren.

Īazko datuekin alderatuta, eskaintza kopuruan hazkunderik handiena izan dituzten jarduerak Eraikuntza, 2024an baino 94 eskaintza gehiagorekin (+% 10,63), eta Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza, 26 eskaintzako igoerarekin (+% 32,91) izan dira. Aitzitik, jaitsiera handienak jaso dituzten jarduerak Manufaktura-industria, 113 eskaintza gutxiagorekin (-% 5,73), eta Administrazio publikoa, 103 eskaintza gutxiagorekin (-% 7,08) izan dira.

